

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2021eko urriaren 13a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2021eko azaroaren 10eko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE). Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko irailaren 8an eginiko ohiko bilkurako akta.
 2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
 3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 3.1. Udal-espazioen garbiketaren eta mantentze-lanen eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko INDESA 2010 SLri mandatua, 2021eko azaroa – 2022ko urria.
 - 3.2. Oyón-Oionen sozietatearen egoitza duten autonomoei eta mikroenpresei laguntzak ematea.
 4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
 5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
 - 5.1. Migraziorako Euskal Itun Soziala sinatzea.
 6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. 2022 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldaketa behin-behineko onestea.
- Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2021eko irailaren 8an eginiko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021eko irailaren 8ko aurreko ohiko bilkurako akta, egin diren oharrak sartuta.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Oiongo EH Bildu), Eva Frías del Val (Oiongo EH Bildu), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzio 1 (bat): Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 173/2021 eta 213/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

3.1. Udal-espazioen garbiketaren eta mantentze-lanen eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko INDESA 2010 SLri mandaturia, 2021eko azaroa – 2022ko urria.

Alkate jn.: INDESAk biharko (osteguna) bilera bat planteatu du prezioaren hazkuntza arrazoitzeke, beraz, batzordean jakinarazi genuen bezala, ez dugu gaia bozkatuko.

Aurrekariak:

- 1) 2021eko urriaren 6ko Obra eta Zerbitzu Informazio Batzordearen proposamena, INDESA 2010 SLrekin hitzarmena onestear geratzeko. Horren bidez, udal-espazioen garbiketa eta mantentze-lan eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko mandaturia ardazten da, besteak beste, honako baldintzen arabera: Mandatuaren prezioa igo da, aurreko ekitaldikoarekin alderatzen bada, eta hazkuntza arrazoitzeke dago. INDESAk gaia arrazoitzen badu, eztabaidatu eta bozkatuko da.
- 2) Alkate jaunaren proposamena gaia gai-zerrendatik kentzeko. Helburua da espedientearen mahaiaren gainean geratzea eta eztabaida hurrengo bilkurarako uztea.
- 3) Tokiko Erakundearen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 25/1986 Errege Dekretuaren 92. artikulua aplikatu behar da.

Hau erabaki da:

- 1) Gaia gai-zerrendatik kentzea. Udal-espazioen garbiketaren eta mantentze-lanen eta kontserbazioaren zerbitzua kudeatzeko INDESA 2010 SLri mandaturia, 2021eko azaroa – 2022ko urria.

Arrazoiak: Proposatutako prezioaren hazkuntza ez da egiaztatu.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

3.2. Oyón-Oionen sozietatearen egoitza duten autonomoi eta mikroenpresei laguntzak ematea.

Aurrekariak:

1. Oion udalerrian sozietatearen egoitza duten autonomoei eta mikroenpresei laguntzak emateko oinarri arauemaileak. Helburua da Covid-19aren pandemiari aurre egiteko aitortu zen osasun-alarma Oiongo mikroenpresei eta norberaren kontuko langilei sortutako ondore ekonomikoak arintzea.
2. Laguntzak emateko hautaketa-prozesuaren deialdia. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 30ean (ostirala), 13:00etan, amaitu zen.
3. Udal-zerbitzuek eskabideak ebaluatu dituzte, eta 2021eko urriaren 1eko (ostirala) 13:00ak baino lehen eskabidea zuzentzeko errekerimendua egin zaie.
4. Bozera maileen Batzordeak eginiko proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Oion udalerrian sozietatearen egoitza duten autonomoei eta mikroenpresei honako laguntza hauek ematea Covid-19aren pandemiari aurre egiteko aitortu zen osasun-alarma Oiongo mikroenpresei eta norberaren kontuko langilei sortutako ondore ekonomikoak arintzeko:

Mikroenpresei

- Adonix SC 1.500 euro.
- Restaurante Avenida 38 SL 1.500 euro.
- Peluquería Tuelma 300 euro. (Ordaindu beharreko gutxieneko modulua).

Autonomoei

- Maria Mar González Rodríguez 1.500 euro.
- Sheila Fernández Cordero 1.500 euro.

- 2) Zuzendu ez duten eskatzaileei (Café Guridi SC) urriaren 28ra arteko epe berria ematea eta ohartaraztea eskabidea zuzentzen eta eskatutako dokumentazioa aurkeztzen ez badu, laguntza eskuratzeko eskakizunak ez egiaztatutzat hartuko direla eta eskaera ezetsiko dela.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzueta (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

5.1. Migrazioarako Euskal Itun Soziala sinatzea.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Eh Bildu Oion taldea ez dago Itunaren aurka, baina eskaerak nazioarteko egunen eta halako adierazpenen kutsua du. Horregatik, proposatzen dugu adierazpena eta Itunarekiko atxikipena osatu eta indartzea. Xede horrez, Eusko Jaurlaritzari honako eskaera hauek egin nahi zaizkio:

- 1a Erakundeen arteko mahaia aktibatzea migrazio-politikak garatzeko.
- 2a Konpromisoak eraldatzea eta Itunean dauden helburuetarako erakundeen arteko programak adostea.
- 3a Itunak duena garatzeko baliabideak zehaztea.

Alkate jn.: Itunari buruzko txostena zinegotzi guztiei bidali zaie hurrengo Osoko Bilkuraren bileran sinatzeko.

Hurrengo batzordearen bilkuran eta ondoren ez zen ezer esan eta orain osoko bilkuran aztertzen ari diren eskeak ez ziren aurkeztu. Gure asmoa da aurkeztutako testuekin bat etorritz Migraziorako Euskal Itun Soziala bozkatzea.

Aurrekariak:

1. Itunari atxikiz gero, oinarritzat hartzen dituen balioen eta printzipioen inguruan oinarritzko konpromisoa onesten da eta, ondorioz, banaka nahiz erakunde-mailan jardungo da.
2. Itunari atxikiz gero, jendaurrean sinatuko da, funtsezko edukia eta adierazpen sinbolikoak onetsiko dira, ahal den neurrian garatzen eta gizarteratzen lankidetzan arituko da eta, batez ere, printzipioak eta balioak egia bihurtuko dituzten egiturak, araudiak eta protokoloak antolatuko dira.
3. Itunari atxikitzean intentsitateak daude: edukiek sinatzen dituzten erakunde guztiei nahasi arren, konpromisoak handiagoa izan behar du erantzukizun publikoren bat duten erakunde, instituzio eta pertsonen kasuan derrigortze-mailara iritsi arte.
4. Itunari atxikiz gero, erakunde publikoek eta pribatuek, bai eta gizarte-erakundeek ere, gizarte- eta erakunde-akordioak lortu beharko dituzte, aukera-gakoan oinarrituta, euskal gizartearen gero eta aniztasun handiagoa kudeatzeko, bai berariazko jarduera-eremuan, bai jarduera garatzen duten eremu geografikoan.
5. Itunari atxikiz gero, zuzenean edo zeharka, printzipioak urratzen dituzten jokabide, jarrera eta adierazpenak prebenitu eta neutralizatzeko jarrera aktiboa izan behar da. Xede horrez, garatzeko eta bermatzeko neurriak sustatuko dira.
6. Itunari atxikiz gero, ezagutzen diren xenofobia- eta diskriminazio-modu guztietarako alerta- eta salaketa-mekanismoak zehaztu behar dira.
7. Itunari atxikitzeak ez du mugatzen, printzipioen eta balioen aurka doan edozein neurri politikoren aurrean gaitasun kritikoa indartu baizik. Itunari atxikitzeak sinatzaileak erabat legitimatzen ditu erakunde politikoei gogorarazi eta eskatzeko inguruabar guztietan erantzukizunez jardun behar dutela immigrazioarekin eta aniztasunarekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.
8. Azkenik, Itunari atxikiz gero, jarraipen-batzordearen bidez ebaluazio-mekanismoak aplikatzea onesten da. Batzorde hori gizarte- eta erakunde-eremuetan eraginkortasunez aplikatzen dela ziurtatzeko sortuko da, eta jardunbide onak ziurtatu eta onesteko modu desberdinak garatuko dira.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea Oyón-Oiongo Udalaren atxikipena Migraziorako Euskal Gizarte Itunari. Horren bidez, bizikidetzarako konpromiso komuna hartzen da, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak helarazi duen dokumentuaren arabera.

Aldeko 9 (bederatz) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Abstentzio 1 (bat): Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea

6.1 2022 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinekoz onestea.

Udalbatzaren 2021 – X – 13ko bilkuraren akta

Alkate jn.: gure proposamena da hurrengo urterako OHZ, EJZ eta TMIZ izoztea; bien bitartean, gainerako tasei eta prezioei % 3ko igoera aplikatu nahi zaie, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko urteen arteko KPIak izandako aldaketa. OHZ da Udalak zergen bidetik duen sarrera nagusia.

Pasa den bilkuran dagoeneko erabaki genuen ostalaritzako negozioen kasuan aulkiak, mahaiak eta mahaitxoak okupatzeagatik tasaz eta zaborragatik tasaz 2021 ekitaldian salbuestea.

Zenbait zerbitzutan hainbat urteko defizita metatzen ari da, hala nola zabor-tasan eta igerilekuei dagokienean, beraz, KPIak gorantz aldaketa handia izan duenez, eguneratzea proposatzen dugu.

Arabako Errioxako Kuadrillari eskatu zaio HHSen bilketa-zerbitzuaren prezioak izango dituen aldaketen berri emateko, ordenantzak aldatzean kontuan hartu nahi baitira.

Lurralde Orearen Zuzendaritzari eskatu zaio aurrez ikusita dauden aldaketen berri emateko, eta orain arte ez da ezer jakinarazi.

Gutxieneko pentsioen eta kotizaziorik gabeko pentsioen kasuan, % 3 igotzea aurrez ikusten da. Tasa honetan proposatzen den hazkuntzarekin (% 6), HHSen zerbitzuak oraindik defizita sortzen du.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Ez dut ezer adierazteko.

Beloqui Unzurrunzaga jaunak (PP) hitza Inclán Gil jaunari (PP) eman dio: Ondo iruditzen zaigu zergak izoztea, baina tasen hazkuntza gehiegizkoa iruditzen zaigu.

Fernández Ruiz jn. (PSE-EE PSOE): Ez dut ezer adierazteko.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Gobernu-taldeak zabor-tasa % 6 igotzea proposatzen du. Azkeneko urteetan tasa ez da behar bezala eguneratu, eta zerbitzu honek udal-altxortegian aurten gutxi gorabehera 7.200 euroko defizita uzten du. EH Bildu Oion taldearen proposamena da aurten % 4 igotzea eta hurrengo urtean ere bai. Hala, bi urtetan zabor-tasa eguneratuko litzateke. Gainerako tasak eguneratzeari dagokionez, nire ustez urtero eguneratu behar da desfaseak saihesteko.

Eh Bildu Oion taldearen proposamena (defizita 2 urtetan xurgatzeko HHSen tasa 2022 ekitaldian % 4 gehitzea eta 2023an beste hainbeste) bozkatu da.

Aldeko 2 (bi) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion) eta Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion).

Aurkako 5 (bost) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

3 (hiru) abstentzio: Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Proposamena ez da onetsi.

Aurrekariak:

1. 2022 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea eta tokiko zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskala ezartzea.
2. Aldaketak honako ordenantza fiskal hauei eragiten die:

- I. 6. zenbakiko ordenantza fiskala. Udal-jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeagatiko edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa.
- II. 8. zenbakiko ordenantza fiskala. Udal-hilerriagatiko eta hileta-zerbitzuagatiko tasa.
- III. 9. zenbakiko ordenantza fiskala, hiri hondakin solidoak (HHS) biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa.
- IV. 11. zenbakiko ordenantza fiskala, administrazio-dokumentuak egiteagatiko tasa.
- V. 12. zenbakiko ordenantza fiskala, establezimenduak irekitzeko lizentziagatiko tasa.
- VI. 13. zenbakiko ordenantza fiskala, hirigintza-lizentziagatiko tasa.
- VII. 14. zenbakiko ordenantza fiskala, udal-igerilekuaren zerbitzua emateagatiko prezio publikoa.
- VIII. 15. zenbakiko ordenantza fiskala, kirol-, gizarte- eta kultura-instalazioak erabiltzeagatiko prezio publikoa.
- 3. Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 14., 15. eta 16. artikulua aplikatu behar dira.
- 4. Kontu-hartzailetzaren txostena eta idazkaritzaren txostena daude.
- 5. Ekonomia eta Ogasun Informazio Batzordeak urriaren 6an eginiko proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Behin-behineko onestea 2022 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea eta tokiko zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza fiskala ezartzea. Gainerako ordenantza fiskalen indarraldia luzatzea.
- 2) Jendaurrean jartzea, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluek ezarritako moduan eta epeetan.
- 3) Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Behin betiko onespenez erabakia argitaratzea, arauak ezarritako moduan eta epean.

Aldeko 5 (bost) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Aurkako 3 (hiru) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2 (bi) abstentzio: Aitor Beloqui Unzuurrungaza (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Azken puntua) Galde-eskeak

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Batzan Nagusiak kalea argirik gabe dago.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Carrefourrek ibiaren baimena du eta lokalaren aurrean espaloian ez aparkatzeko eskubidea erabiltzen du. Seinaleek herritarrei arazoak sortu dizkiete, eta Ertzaintzak isunak jarri dizkie.

Idazkari jauna: Egiaz, “Ibiak” deritzon tasa ibilgailuak espaloien edo oinezkoentzako guneen bidez finken barrura sartzeagatik eta herri-bidean aparkalekua gordetzeagatik jasotzen da.

Alkate jn.: Ibia markatu eta seinaleztatuko dugu jendea ez nahasteko.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Seinaleztapen bertikala komeni da.

Alkate jn.: Felipe IV hotel ohia sozietate baten jabetzakoa da, eta azaroaren lizentzia eskatuko du. Prestakuntza-funtsaren bidez ikastaro soziosanitario batzuk egingo dira Felipe IV ohian eraikiko den zaharren egoitzerako prestakuntza behar duten langileen beharrak asetzeko.

Fernández Ruiz jn. (PSE-EE PSOE): Interesgarria litzateke nekazaritzako ikastaro bat egitea kimaketetan, udaberriko kimaketetan, eta abarrean trebatzeko.

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:48an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2021eko urriaren 27an

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza